



BARREN
TOKI KOM

Atari hutsak, kale hilak

10 EGUN KIA
ESKAINZA ERREPIKAEZINAK AZAROAREN 12TIK 23RA



 Gama elektrifikatua barne



The Power to Surprise

NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1
Eibar. Gipuzkoa
www.naiacar.com

  943 70 70 33





Sherpa edredoi-bilduma berria!

Oso leunak.

Alde bat mikrolinazkoa da,
eta bestea borregitozkoa.

Tamaina guztietan.



Mila esker
zuen konfiantzagatik!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Atxutxiamaikaren eta Ludotekaren

Haurrentzako neguko oporraldiko aisia eskaintza

Izen ematea: azaroak 23 - azaroak 29

- ◆ www.elgoibarkotzarra.eus
- ◆ Elgoibarko Izarraren bulegoan (alde zurretik hitzordua hartuta)
- ◆ Ludotekan

PLAZA MUGATUAK

Antolatzaileak:



Zehar
Medikuntza eta Programak

Udalaren dirulaguntzak

Eskaerak abenduaren 15a baino lehen egin beharko dira, www.elgoibar.eus-en edo H.A.Zen (Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan):

- ◆ DSBE eta GLL laguntza jasotzen duten familiek kuotaren %70eko dirulaguntza jaso dezakete.
- ◆ Familia ugariak eta guraso bakarreko familiek, seme-alaba bakoitzeko kuotaren %30eko dirulaguntza jaso dezakete.
- ◆ Bigarren seme-alaben izen ematea egiten dutenek, bigarren honen kuotaren %30eko dirulaguntza jaso dezakete.

Laguntzaileak:



INGENIARITZA DUALA

IMH FABRIKAZIO AURRERATUAREN
ETA DIGITALAREN CAMPUSA
CAMPUS DE LA FABRICACIÓN
AVANZADA Y DIGITAL

Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

PROZESU ETA PRODUKTU
BERRIKUNTZAN INGENIARITZA
GRADUA

INFORMAZIOA SAIOA IMHn:

AZAROAK 24, asteartea
18:00etan ON-LINE

Izena emateko:
ingeniaritza.ehu@imh.eus
943748264
WWW.IMH.EUS



Zergatik dira emakumezkoak gehiago?

Lehen edizioan, Euskaraldia ariketan izena eman zutenen artetik, Euskal Herrian % 62,2 emakumezkoak izan ziren. Lurralde guztietan izan ziren nagusi emakumezkoak. Elgoibarren ere % 38 baino ez ziren izan gizonezkoak. Bigarren edizioko izen-ematean, Elgoibarren, areagotzen ari da genero-desoreka: gaur arte izena eman dutenen artetik, % 64 emakumezkoak dira (%36 gizonezkoak). Zer dago desoreka horren atzean? Bigarren edizioan izena eman duten hiru emakumezkoari gaiaren gaineko gogoeta egiteko eskatu diegu.



Izaskun Estibariz

Emakumeok gehiago parte hartzen dugu kultur jardueretan. Gehiago irakurtzen dugu, kontzertuetan, antzokietan, irakurle-taldeetan, zinemetan... gehiago izaten gara. Hartzaile eta parte-hartzaile kolektibo modura eraiki gintuzten. Gizonei, aldiz, tresnak maneiatzea gustatzen zaiela ikusten dut, askotan, bakarka: gailuen bidez iristen zaien kultura eta informazioa kontsumitzen dute askok. Musika tresnak jotzen dituzte, bideo-jokoak erosten, argazkiak egiten... eta albisteen zain daude pantailetan.

Gu laguntzaile eta zaintzaile roletarako hezita gaude, aisago aritzen gara boluntario lanetan: GKEetan, janari eta arropa bilketetan, doako zainketa lanetan... beti nagusi. Hizkuntza zaintzea eta transmititzea ere gure ardura izan da hein handi batean.

Zer gertatzen ote da gizonekin? Ez al dute interes sozialik? Akaso, beste modu bat dute interes hori bideratzeko: botere eta autoritadedun kontestuetan agertu ohi dira.



Ainara Argoitia

Izan daiteke kasualitatea, baina ez dut uste. Euskalgintzan, emakume gehiago topatu ditut beti gizonak baino, eta orain ere, denboraz pobregoa izan arren, lagun emakumeak ditut inplikatuena Mendaroko Euskara Taldean. Izan daiteke, historikoki, emakumeon papera oso lotua egon delako hizkuntzarekin eta orobat kulturaren transmisioarekin, umeen zaintza ere andreen eskuetan egon delako. Pentsa, oraintsu arte, ama hizkuntza esaten genion lehen hizkuntzari ere. Eta ez, gure etxean ere ez da ama bakarrik izan euskara transmititu diguna, baina bai euskararen alde egiteko kemena eman diguna. Amak eramaten zuen ahizpa ikastolara eskutik, ikastolak gaur besteko prestigiorik ez zuenean, ama jardun zen Egunkariaren aldeko bonoak saltzen; ama ibili da sarri gure errekadista, errifak, txapak eta abarrak hartuta eta amak eskatu digu beti euskara elkarteari gure onena emateko. Irakurri aitarekin irakurtzen genuen gauero, eta gozotasun hori eman digu, baina errebeldea ama izan da.



Narrutxik-eko kideekin batera

Irati Gurrutxaga

Nik uste bai historikoki eta baita hein batean gaur egun ere, emakumeok arduratu izan gara seme-alaben zaintza eta haien heziketaz, eta ondorioz, hizkuntzaren transmisioaz. Horrek zerikusia izan dezake Euskaraldian emakume gehiagok parte hartzearekin, euskararen transmisioa emakumeon ardura dela sentituko bagenu bezala. Gainera, gauza bera erakusten dute euskararen erabileraren datuek ere, orokorrean emakumeok gehiago egiten dugula euskaraz gizonek baino, hau da, askotan emakumeak direla egunerokotasunean *Ahobizi* rola hartzen dutenak.

Horrez gain, gure herriko kultur ekintzetan parte hartzen duen gehien-goia emakumeok osatzen dugu (gazteen kasuan batez ere), eta agian pentsa daiteke desoreka hori ez dela soilik euskararen eta euskalgintzaren kontua. Agian betiko eredu maskulino hegemonikoarekin bat ez datorren parte-hartze eredu bat da emakumeon inplikazio handiagoa bultzatzen duena.





JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea

Amamak

ote zen izango. Izan ere, oso dotore nengoen jaka, al-kandora zuria, praka motzak, galtzerdi beltz luzeak eta txar-lezko oinetakoak jantzita. Eta lepoaren bueltan goma bat zuen gorbata nuen (harrez geroztik, ez dut inoiz gorbatarik jantzi), eta belaunburuan bost zentimetroko zauria, eta hamar zentimoko trapua. Gure amama, bitartean, betiko moduan, goitik behera beltzez zegoen jantzita. Ez dakit bestelako kolorerik ezagutuko zuen Demetrio hil ostean. Nik, behintzat, ez dut gogoan. Oso txikia zen, eta ni bera bezain txikia

“Ziur nago oraingo amamek ere sekulako ahaleginak egingo dituztela ilobek inoiz ahaztuko ez duten marka nonbaiten uzten”

ez izateko, sarri askotan, bazkaldu aurretik, trikimailu bat erabiltzen zuen: «*Ikusiko duzu, Juan Luis*». Eta sukaldeko hormaren kontra bizkarra pausatzeke, eta burua tente jartzeko esaten zidan: «*Orpoak atzera, elkarren ondoan. Horrelaxe!*». Gero, aiztoa hartu, eta buruaren gainean trabeska jartzen zuen hormaren zurian puntak marka egiteko, eta, poliki-poliki, gora nola egiten nuen ikusteko. Ez dakit gaur egungo pediatrek zer nolako amarruak erabiliko dituzten umeen hazkundera neurtzeko. Pentsatu nahi dut sofistikuagoak izango direla. Ez dakit gaur egungo pandemia honek zer nolako eragina izango duen umeen koskortzean. Nahi nuke nagusiongan besteko influentziarik ez izatea. Halarik ere, ziur nago, oraingo amamek ere, nork bere tamainan, nork bere neurrian, sekulako ahaleginak egingo dituztela, Mariak bezala, ilobek inoiz ahaztuko ez duten marka nonbaiten uzten.

L ehengoan, gurasoen etxera joan nintzen. Egun, inor ez da bizi, orduko mamuak bakarrik. Halarik ere, gustura izan nintzen aspaldikoa gogora ekartzen. Horretarako, lozorroan egondako iluntasuna esnatzeko, erreka aldeko persianak bildu nituen. Gero, egongelako bazterrak ikusmiratu, logeletako arasak zabaldu, eta tartean ezertarako balio ez zuten paper zaharrak, eta zuri-beltzean egindako argazki batzuk kartoizko kutxa batean ikusi nituen. Batean, amamarekin nengoen *Txankakuako* zubian, petrilaren kontra, irribarrez. Ez dakit jaunartze eguna ez



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKER MILA

Duela hiru aste, sorpresaz eta emozio handiz irakurri nuen atal honetan zuk niri buruz idatzitakoa.

Oraingoan ni neu natorkizu zuri bihotzez eskerrak ematera. Orain hilabete batzuk ez nuen uste liburu oso bat euskaraz irakurtzeko gai izango nintzenik, eta are gutxiago uste nuen horrenbeste gozatuko nuenik. Zure laguntzari eta bultzadari esker, lortu dut, eta beste mundu bat zabaldu zait. Oso pozik nago erronka berri honekin.

Mila esker, zuri, gure hizkuntza zaindu, bultzatu eta lau haizetara zabaltzeagatik.

I.J.

► GIZA KATEA

COVID-aren eraginez, okertu egin da berez egoera gogorra eta zaila zuten euskal presoen egoera. Aplikatzen zaien salbuespeneko espetze politika gutxi balitz, bertan behera utzi dituzte bisean biseko topaketak, familia komunikazioak eta bizikidetzako komunikazioak, mintzategiaren bidez egiten ez direnak. Horrez gain, osasun krisiak bakartze egoera handitzen ari da presoengan eta zailtzen ari da bisitan doazen senideen egoera. Horregatik oinarritzakoak eta urgentziazkoak diren pausoak eman daitezten eskatzen dugu berriro ere: larriki gaixo diren presoek kaleratzea, urruntze politika amaitzea, grado-progresioa aplikatzea, zigorrak batzea, bakartuak diren emakume presoak elkartzea; finean, salbuespen legea bertan behera lagatzea eta lege arrunta ezartzea. Gero eta gehiago dira eskaera hauekin bat egiten duten eragile politiko, instituzional, sindikal eta sozialak. Aukerak probestu behar dira. Madril eta Paris hitzetatik ekintzetara pasa daitezela eskatzen dugu eta pauso gehiago eman ditzatela. Azaroaren 21ean, larunbatez, Euskal Herri guztian mobilizatuko gara helburu hauen alde. Elgoibarren, 13:00etan, giza-kate bat osatuko dugu, Kalegoen plazan hasi eta Maalako parkean bukatuta.

Bidea egiten hasita gaude, etxeratzeko bidea, elkarbizitza eta bakerako bidea. Bide hau elkarrekin egitera gonbidatu nahi zaitugu. Izan bidea!

Sare Elgoibar

► J.U.-RI ERANTZUNA. UDALEKO OSOKO BILKURAK STREAMING BIDEZ

Ezer aipatu aurretik, esan nahi dut ez naizela ni atal honetan idaztearen zale, baina aurreko asteko gutuna irakurrita, erantzun beharra sentitu dut. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiot J.U.-ri aurreko asteko BARREneko alean bere kezka

azaltzeagatik. Elgoibarko EH Bildun oso argi daukagu gardentasuna izan behar dela gure lanaren ardatz, eta herritarren aurrean gure azalpenak emateko eta udal jarduera herritarrei gerturatzeko baliabide guztiak martxan jarri behar direla. Gaur egunean, teknologia berrien garai honetan, streaminga da baliabide horietako bat. EH Bildun aspaldi aldarrikatu genuen lehen aldiz Udaleko osoko bilkurak zuzenean emateko beharra (streamingez osoko bilkurak zuzenean jarraitu ahal izatea), eta, iazko irailaren 25ean, aho batez, Elgoibarko udaleko osoko bilkurak zuzenean streamingez ematea onartu bazen ere, gaur, 2020ko azaroaren 13an, urtebete baino gehiago igarota, oraindik ez da mozio hori martxan jarri. Denbora tarte horretan, sarritan aldarrikatu dugu mozio hori bete beharra, baina oraindik ez dugu lortu udal gobernua bere ardura bere gain hartzea. Espero dugu ahalik eta azkarren kontu hau konpontzea

Jon Peli Uriguen Ansola, Elgoibarko EH Bilduko udal taldea

Juan Cruz Sol Oria

13-09-1947 / 10-11-2020

2020ko azaroaren 10ean hil zen, 73 urte zituela.

Haren oroimenez hileta elizkizuna izango da, domekan, azaroaren 15ean, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herri osoari, jasotako maitasun-adierazpenengatik.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Elgoibarko familia



Elgoibarko Udaltzaingoak hamalau salaketa jarri ditu neurri murriztaile berriak indarrean daudenetik

Covid19-ari aurre egiteko Jaurlaritzaren azkeneko neurri murriztaileak indarrean daudenetik hamalau salaketa jarri ditu Udaltzaingoak, gehienak mugikortasunarekin eta maskararen erabilera okerrerarekin lotuta. Zazpi salaketa jarri dituzte udalerrira lotzen gaituen neurria ez errespetatzeagatik eta beste bost gaueko ordutegian zirkulatzeko debekua ez errespetatzeagatik. Halaber, beste bi isun jarri dituzte maskara ez erabiltzeagatik eta beste bat maskararen erabilera okerragatik. Jaurlaritzaren azken neurriak urriaren 26tik daude indarrean eta Elgoibarko Udaltzaingoak irekitako zigor-espeditentak urriaren 29tik azaroaren 3ra bitartean ezarritakoak dira



Zuberoako ikastolei laguntzeko saskiak salduko ditu aurten ere Elgoibarko Izarrak

Urtero moduan, aurten ere Zuberoako ikastolen aldeko saskiak edo otarrak salduko ditu Elgoibarko Izarrak elgoibartarren artean. Hiru otar edo saski egongo dira aukeran: Ahuzki (40 €); Irati, (55 €) eta Orhi (70 €). Interesatuak azaroaren 27a baino lehen idatzi edo deitu behar dute Elgoibarko Izarrara (elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 74 16 26).

2003an egin zuten estreinakoz Zuberoako ikastolei laguntzeko ekimen hau, hurrengo hiru helburu nagusi hauekin: Ikastolaren finantzazioan laguntzea, euskararen erabilera handitzea Zuberoan eta bereziki ikastoletan, eta tokiko ekoizleak eta produktuak ezagutaraztea, Zuberoako etxalde eta enpresetako ekoizpenak dituzten otarrak eskainiz.

2021eko aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea hasi du Udalak

Hirugarren urtez jarraian, Elgoibarko Udalak prozesu parte-hartzaile berri bati ekingo dio, "elgoibartarrek hitza eta presentzia" izan dezaten 2021eko udal aurrekontuetan. Udalak, herriarren inplikazioa bilatu nahi du, udal kudeaketan ahotsa izan dezaten eta beraien lehentasunak errealitate bihurtu daitezten. Udalak aurreko urteetako zenbatekoa mantendu eta 200.000 euro bideratuko ditu aukeratzen diren proiektuak egiteko. Prozesua bi fasetan gauzatuko da: proiektuak aurkeztea (1. fasea) eta aukeratutako proiektuak lehenestea (2. fasea). Elgoibarren erroldatuta dauden pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute. Gaur ireki dute proposamenak egiteko epea eta abenduaren 29ra arte egongo da zabalik. Proposamenak aurrez aurre egiteko bi modu egongo dira: Formulario bat bete eta azoka plazan jarriko duten hautestontzian botata, edo Kalegoen plazan azaroaren 18an eta 19an jarriko duten karpan (11:00 -13:30 / 16:00 -18:30etara). Online bidez parte hartzeko, berriz, www.elgoibar.eus web orrialdean, Udalaren sare sozialetan edota QR kode baten bidez egin daiteke.



'Susanaren iraultza' antzerkia bihar, Mendaron

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunari begira hainbat ekintza antolatu ditu Mendaroko Udalak, tartean, *Susanaren Iraultza* antzezlan. Senar-emazteen arteko desorekak aztertu eta iraultza proposatuko du Susanak. Bere bizipenak ikusleekin partekatuko ditu, ekintza, emozio, kantu eta beste hainbat adierazpen moduren bitartez. Bestek beste, ondorengo gaien gaineko hausnarketa bilatuko du: Ar eta eme indarren arteko oreka, kultura eta tradizioak eragindako rola eta moldeak, sexualitatea, biolentzia, soldata arrakala, mugimendu feministaren lorpenak eta haien ondorioak eta ekarpenak... Esther Carrizo aktorea jarriko da Susanaren azalean. Clown emanaldia izango da, eta umorea izango da nagusi. San Agustin kulturgunean izango da saioa, 18:30ean hasita eta doan izango da. Sarrerak aurrez eskuratu behar dira Leire jantzi dendan.

Eguaztenean zabalduko dute familientzako jostailu erakusketa

A txutxiamaiak, Ludotekak eta Gaztelekuak familientzako jostailu erakusketa antolatu dute. Otiak 8 urtera bitarteko umeentzako jostailuak Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko dituzte ikusgai, eta 8 urtetik aurrerakoak Aita Agirreko erakusketa gelan. Eguaztenean zabalduko dute, eta zapatura arte egongo da bisitatzeko aukera. Eguaztetenetik barikura 17:00etatik 19:30era eta zapatuan, berriz, 11:30etik 14:00etara. Aurten berrikuntza bat izango du erakusketak: katalogo birtuala. Paperezko katalogoan agertzen diren jostailuen alboan QR kode bat agertuko da, eta horri esker, jostailuari buruzko informazioa ematen duen bideoa ikusi ahal izango da.

Euskararen Eguneko esaldi lehiaketako saririk ez dute emango Elgoibarren

Elgoibarko Izarrak eta Gaztelekuak esaldi lehiaketa antolatu dute seigarren urtez, Euskararen Egunaren harira. DBHko eta Batxilergoko ikasleentzako lehiaketa zen, eta euskararekin zerikusia zuen esaldiren bat osatu behar zuten partaideek, euskara hitza agertu gabe. Esaldi irabazlearekin kamisetak ateratzea zuten helburu, baina antolatzaileek jakinarazi dutenez aurtengo parte-hartzea apala izan da eta ez da egon kamiseta batean jartzeko moduko esaldirik. Horren ordez, antzerki bat antolatu dute Batxilergoko lehenengo mailakoentzat. Oskar Estanga (Gaintza, Nafarroa, 1978) musikariak bertsolaritzatik hartutako bat-bateko tresnekin estilo desberdinetako kantak inprobisatuko ditu. Geletan emango ditu saioak, urtea amaitu aurretik.

Ikastolako Eguneko errifa saridunak

Ikastolaren Egunerako saldutako errifaren zozketa egin dute eta hauek dira zenbaki saridunak: 1. saria: 1287 (erreserbakoa, 1053), eta 2. saria: 3277 (erreserbakoa, 1446). Saria jasotzeko 15 eguneko epea dago. Harremanetarako: lizapika@hotmail.com

Enpresa txikiei eta autonomoei aholkularitza emango die Debegesak

Autonomoei eta hamar langile baino gutxiago dituzten enpresei zuzendutako aholkularitza zerbitzua abiarazi du Debabarrenako Garapen Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan. Zerbitzua COVID-19aren pandemiak eragindako zailtasun ekonomikoak dituzten enpresei dago zuzenduta. Enpresen egoeraren diagnostikoa egin, eta besteak beste, eskura ditzaketen dirulaguntzen edo dirulaguntza-programen berri emango die Debegesak. Autonomoei eta ETE bakoitzaren egoerara moldatutako arreta pertsonalizatua emango dietela azaldu dute. Zerbitzua doakoa izango da eta eskualdeko edozein autonomok zein ETE txikik dute eskatzeko aukera, Debegesarekin kontaktuan ipinita: ekintzaile@degesa.eus helbidera idatzita edo telefono honetara deituta: 943 820 110.

Euskaraldiko txapak jasotzeko mahaiak Mendaron

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den Euskaraldia ariketarako izena eman duten mendaroei barikuan eta zapatuan izango dute dagokien txapa eskuratzeko aukera, Mendaroko Euskara Batzordetik jakinarazi dutenez. Era berean, oraindik izena eman ez dutenei izena emateko datuak ere hartuko dizkiete, hala nahi izanez gero. Udaletxe azpiko lokal parean jarriko dute mahaiak. Barikuan, 18:00etatik 19:30ak aldera arte egongo dira bertan, eta zapatuan, 12:00etatik 13:30ak aldera arte. Gogoratu, hala ere, euskaraldia.eus webgunean ere badagoela izena emateko aukera, azaroaren 19ra arte.

Dantza saio guztiak bertan behera utzi dituzte Mendaron

Azkeneko neurrietara egokitu behar izan du berriro Udalak Azpilgoetako Kultur Etxeko jarduna, eta jakinarazi du bertan behera gelditu direla dantza saio guztiak, kirola taldean egiteko debekuak, musika eta dantza entseguei ere eragiten dielako. Era berean, Andoneikua parkeko padel pistaren erabilera ere mugatu dute. Orain, jokalariek profesionalak eta semiprofesionalak bakarrik entrenatu ahal izan izango dira. Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan eta Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketetan parte hartzen dutenak hartzen dira semiprofesionaltzat.

'Pinocchio' haurrentzako antzezlan, domekan

Gorakada konpainiak *Pinocchio* antzezlan ekarriko du domekan Elgoibarrera, Herriko Antzokira. 16:30ean hasiko da saioa, eta sarrerak egunean bertan eskuratu beharko dira lehiatilan. Pinotxo obra ezagunaren bertsio eguneratua da, eta 6 urtez gorakoei zuzenduta dago.

Elgoibarko Izarrak ez du Gabonetan tonbola jarriko eta Olentzero eta Mari Domingiren kalejirarik eta erregeen desfilerik ere ez da izango

Ezer ez da berdin, eta Gabonak ere ez dira aurten ohikoak izango. Birusari hegoak moztu aldera, derrigortuta gaude jende pilaketak saihestera eta horrenbestez, Gabonetan egin ohi diren ekitaldi asko ezin izango dira egin, ez behintzat ohiko formatoan. Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Sailak antolatu ohi du urtero Elgoibarren Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, baina aurten ezin izango dela egin aurreratu dute. Eta jakina, egun horretan, elkarteak Kalegoen Plazan jarri ohi duen tonbola eta talo-posturik ere ez da izango aurten. Hala ere, antolatzaileek mezu lasaigarria bidali nahi izan diete herriko haur eta familiei, eta aurreratu dute bai Olentzerok eta Mari Domingik asmatuko dutela bidea etxeetara iristeko. Errege Magoen kabalgata antolatzea, aldiz, Katekesi taldearen arduruan egon ohi da Elgoibarren, baina arrazoi beragatik, aurten ez dira errege magoak kalez kale ibiliko herrian.

Mendaron ere, antzera

Mendaron ere gauza bera. Urte berezia da aurtengoa, eta segurtasun neurri guztiak hartzea dagokigu birusa gehiago zabaldu ez dadin. Horregatik, Ameikutz Musika Eskolatik jakinaz dute aurten ez dutela antolatuko Eguberrien bueltan egin ohi duten jaialdia, eta Santa Zeziliaren omenezko kontzerturik ere ez dutela egingo. "Ez da momentua. Arduraz jokatzeari dagokigu", zabaldu dute. Olentzero eta Mari Domingiren kalejira



ere Ameikutz Musika Eskolaren arduruan egon ohi da, baina aurten ezin izango da egin. Hala ere, Mendaro Ikastolarekin harremanetan jarri da Udala, Gabonetako oporraldi aurreko azken egunean Olentzerok eta Mari Domingik ikastolan gelaz gela joateko aukerarik duten aztertzeke. Erregeen kabalgata antolatzeko ardurua Arno Guraso Elkarteak hartu izan du urteetan, baina aurten aurreratu dute erregeak ezingo direla kalez kale ibili. Hala ere, Elgoibarren antzera etxeetara iritsiko direla zabaldu dute.

Pentsiodunen Mugimenduak, Euskal Herriko Eskubide Sozialaren Karta sinatu zuten eragile eta norbanakoek eta dozenaka herritarrek egin dute bat Osakidetzako mobilizazioekin



Joan zen astean bezala, eguazten honetan ere mobilizazioak egin dituzte herrietan osasun etxeen atarrietan. Zerbitzu publikoetan izan diren murrizketak salatu dituzte eta baliabide gehiago eskatu dituzte osasungintza publikorako. Dozenaka herritarrek egin dute bat Osakidetzako profesionalekin eta baliabide ekonomiko eta pertsonal gehiago eskatu dituzte, bereziki Lehen Arrerarako. Deialdiari atxikimendua agertu zioten aste hasieran Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak, bai eta Euskal Herriko Eskubide Sozialaren Karta sinatu zuten herriko eragileek eta norbanakoek. Azken horiek prentsa oharra zabaldu zuten eta babesa agertu zieten osasungintza publikoan lanean ari diren profesionalei ere: "Lehen mailako arreta ia erabat telefonikoa da eta ez genituzke nahi ahaztu bertako langileek lan-baldintza eskasak".

Begi guztiak ostalaritzan

Joan zen asteko egunean jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak ostalaritza itxiko zutela, eta zapatuan sartu zen arava indarrean. Orduetik, etxerako jatekoa prestatzeko baimena bakarrik dute ostalaritzako establezimenduek. Etxeratze agindua ere ordubetez aurreratu zuten, eta orain, 22:00etan etxean egon behar da.

Azaroan eta abenduan Elgoibarko Udalak ez die zabor tasarik kobratuko bost langiletik beherako ostalaritza-establezimenduei

Ostalaritzaren itxiera dekretatzeko Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiaren harira, Elgoibarko Udalak erabaki du ez kobratzea ostalariei azaroko eta abenduko zabor kuota. Kuota helbideratuta duten bost langile baino gutxiagoko establezimenduek bigarren seihilekoaren kuota atzera botatzeko aukera izango dute, eta helbideratuta ez dutenek, ez dute ordaindu beharrik izango bi hilabete horietan. Halaber, bi kasuetan, helbideratuta dutenek zein helbideratu gabek, dagokion hobaria eskatu behar dute Elgoibarko Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ).

EH Bilduren proposamena

Elgoibarko Udalak ostalariei azaroko eta abenduko zabor kuota ez kobratzeko hartutako erabakia "eskertzekoa baina eskasa" dela iruditu zaio EHBilduri. "Eskertzeko neurria bada ere, eskasa dela uste dugu Elgoibarko EH Bildun. Uste dugu neurri hori beste establezimendu batzuetara ere zabaldu behar dute litzatekeela, horretarako ezinbesteko azterketa eginda". Ostalaritzaren itxierak gainerako sektoreengan eragina duela ere ohartarazi dute, eta egoera honen aurrean, ostalaritzari laguntzeko hainbat neurri proposatu dituzte: Hasteko, Elgoibarko ostalaritza establezimenduen zerrenda eguneratzea eskatu dute, bakoitzak daukan egoerarekin, langile kopurua, egoera ekonomikoarekin... Kalitatiboki, taberna hauek herrian sortzen duten eragin ekonomiko positiboaren azterketa egitea ere beharrezko ikusten dute, eta horretarako, Ostalaritza Mahaia eratzeko beharra dagoela uste dute. Herriko ostalarien ordezkartza batek, Elgoibarko udaleko alderdi politikoetako ordezkariak eta udal teknikariak osatuko lukete mahai hori. Era berean, etxerako zerbitzua daukaten establezimenduen zerrenda eguneratzeko eskatu dute, bakoitzak ematen dituen zerbitzuak erantsiz, eta herritarren eskura plataforma bat jartzea, establezimendu guzti horien zerbitzu horiek zentralizatzeko. Horrez gain, diru-laguntza zuzenak eskatu dituzte ostalaritzarentzat, bai eta 2021eko tasak eta ordenantzak berrikustea ere. Azkenik, kultur eragileekin batera, Elgoibar biziberritzeko proiektu bat martxan jarri behar dute litzatekeela uste dute, pandemiak baimentzen duenean.



'On egin' bono kanpaina

Aste honetan hastekoa zen 'On Egin' bonuen kanpaina berria bertan behera gelditu dela jakinarazi du Elgoibarko Udalak. Era berean, urrian saldu zituzten bonoengan ere eragina izango du ostalaritza itxeko Jaurlaritzaren azken erabakiak: urrian saldu zituzten 3.250 bonoak trukatzeko epea abenduaren 1ean amaitzen zen, baina epe hori luzatu egingo dute, itxierak iraun bezain beste egunez. Bonoa erosita dutenek etxeko bidalketa duten eta kanpainarekin bat egin duten taberna eta jatetxeetan trukatu ditzaketeela gogorarazi dute Udaletik. Halere, ostalaritzaren irekiera erabakitzen denean, urriko bono horien iraungitze data zehatzaren berri emango dutela arduradunek.

Elkarretaratzea egin zuten zapatuan Mendaron ostalaritza babesteko eskatzeko



Eusko Jaurlaritzak gutxienez hilabete osorako taberna eta jatetxeei ezarritako itxialdiaren harira, elkarretaratzea egin zuten zapatuan Mendaron, ostalaritzari babesa agertzeko eta ostalaritzan lanean ari direnentzako laguntzak eskatzeko instituzioei. Dozena bat lagun pasatxo elkartu ziren. Herriko ostalariak kezka agertu zuten barikuan, zapatuan itxi behar dute zutela jakin berritan, eta izan da egoerari buelta eman nahian bere kabuz bono sistema martxan jarri duenik ere. Uztargi tabernan, esaterako, kontsumo bonoak eskuratu daitezke 20 euroan, eta horiekin 30 eurora arteko kontsumizioa ordaintzeko aukera dute bezeroek.



Kale inkesta

Ostalaritza itxita eta etxeratze agindua 22:00etarako. Zer iruditzen zaizkizu Jaurlaritzak hartu dituen azken neurriak?

CELIA TEIXEIRA, Asgi taberna

“Ez nago konforme neurri berri hauekin. Ostalariok hartu genituen ezarri zitzaizkigun babes neurri guztiak, eta hala ere, dena itxi dute. Polizia papera ere hartu nuen behin baino gehiagotan maskara janzten ez zuten bezeroekin, eta dena alferrik. Orain jendea botila festak egiten hasi da Sallobenten edo Idotorben eta etxeetan ere hasi dira biltzen. Gure egoera zaila da, eta eskerrak etxera eramateko janaria prestatzeko aukera daukagula, bestela akabo. Dirulaguntzak agindu dituzte, baina nik ez dut Gobernutik ezer jaso oraindik. Eskerrak eman behar dizkiet jatekoa eskatu didaten bezero guztiei, haiei esker egingo dugu aurrera, egitekotan, baina nik beltz ikusten dut dena. Beste herrialde batzuetan ostalaritzaz gain komertzioak ere ixten hasi dira, eta hona ere etorriko da hori”.



NEKANE ARANZABAL, San Roke taberna

“Esaten zuten etorriko zela erabaki hau eta etorri zen, baina egunik txarrenean etorri zen gainera, barikuan. Taberna eta jatetxe askok asteburuari begira lan gehiago egiten dute, eta kolpera ixtea gogorra da. Janaria etxera eramateko prestatu dezakegu, eta horri esker nahiko ondo ari naiz lanean. Egunero prestatzen ditut pintxoak lehen bezala, eta taberna itxita dagoen arren, leihotik saltzen dut. Kafea ere askok eskatzen dute eramateko. Ondo ari naiz lanean, baina egoera gogorra da. Lehen neurriak hartuarazi zizkiguten: aforoa mugatu, mahaiaik distantziara jarri, gel hidroalkoholikoa jarri mahaietan... dena bete nuen nik, baina hala ere, badirudi ez dela nahikoa izan. Ematen du ostalariak garelako guzti honen errudunak, eta errazena tabernak ixtea dela. Orain, baina, jendea beste leku batzuetan biltzen da, esan didatenez, Sallobenten ibili dira gazteak botila festa egiten. Norbera izan behar da bere jokabidearen arduraduna. Espero dugu agindu dituzten laguntzak ematea behintzat. Denon artean egoera honi buelta eman behar diogu. Gogorra izango da, baina irtengo gara”.



ARTZ LANDA, Iturri taberna

“Oso neurri gogorrak izan dira guretzat. Lan egiteko modu berriak asmatzen ari gara orain, etxera eramateko janaria eta kafea prestatzen, eta lehenengo egun hauetan nahiko ondo ari naiz lanean. Kalera irteten den jende gehienak kafea nahi du, eta ez dakit kafea bakarrik saltzea legala den, ilegal edo alegala. Momentuz horrela ari naiz. Dirulaguntzak eskatzen gabiltza, baina ez dakigu zer emango diguten. Udalak behintzat zaborraren zerga kendu du hilabete honetan, eta lehen ere zerga batzuk gutxitu zizkigun, baina bestela, ezer gutxi. Langileak Enplegu Erregulazio Espedienteetan egon ziren eta nik autonomo bezala negozioa eteteagatikoa laguntza jaso nuen. Egoera gogorra daukagu, baina momentuz baikor nago. Ez badigute lagatzen horrela lan egiten itxi egin beharko dugu eta hori okerragoa izango da. Iruditzen zait bat baino gehiago bidean geratuko direla eta pena izango da”.



ASIER LANDA, Mendaroko Landa erretegia

“Zer esango dizut ba? Desastre hutsa da hau guretzat, eta okerrera da etorki-zuna ere kolore iluneko ikusten dugula. Ez dago egoerak hobera egingo duela pentsatzeko ebidentziarik, eta zaila ikusten dugu. Jaurlaritzak tabernak ixteko agindu baino astebete aurretik itxi genuen guk jate-txea, mugikortasuna herrira mugatu zutenean. Gure bezero gehienak kanpokoak dira eta guri mugikortasuna herrira mugatzeak min handia egin zigun. Lanerako aukerarik gabe gelditu ginen gu orduan, eta ixtea erabaki genuen. Gero etorri da beste hau: tabernak eta jate-txeak ixtea eta jakizu noiz arte gainera! Iruditzen zait arau hauek hartu behar badira, laguntza neurriekin batera etorri behar direla. Alemanian-eta horrela ari dira. Joan zen urtean deklaratu zutenaren arabera laguntza jasotzen ari dira han, eta hemen ere, halako zerbait beharko genuke, familia askoren sosteguna delako ostalaritza. Gurean etxeko lauk egiten dugu lan erretegia. Bi anaiok eta gure bikotekideek, eta gainera, beste bi langile ere badauzkagu. Lau familiak jaten dugu negozio honetatik. Diru-sarrera gabe gelditu gara, baina gastuak ia-ia berdinak dira, eta ez dira gutxi, gainera”.



BRUNO SANTOS, Mendaroko Lagun betikoak



“Esan eta esan zebiltzan, eta hein batean ez gaitu ezustean hartu, baina nola egin duten ez zait oso ondo iruditu. Ostegunean esan zuten eta zapatuan sartu zen indarrean araua, eta zer gertatu da astebururako generoa erosita zuten jate-txe eta abarretan? Zeinek ordaindu behar die orain aurrez jarritako diru hori guztia, esaterako? Gainerakoan, zer esango dizut nik. Ostalaritzan ahalegindu gara gure esku zegoen guztia egiten birusa zabaldu ez dadin. Guk hartu ditugu neurri guztiak, nahiz egia den taberna bueltara batzen zaizkigun bezeroak zaintzea ez dela beti erraza. Guraso edo polizia lanetan ez naiz jardun, baina nire esku zegoen dena egin dut protokoloetara egokitzeko. Hori garbi esan dezaket. Eta honek min handia egingo digula ere bai. Nik bi langile dauzkat kontratuta tabernarako, eta beraz, esanenezake gure tabernak hiru familiari ematen diela jaten. Gogorra da, oso gogorra, ez dugulako ikusten argi larregirik ere. Tabernak itxi dituzten beste leku batzuetan ere kostata ari dira kutsatze kasuak gutxitzen, eta ez dut uste denean lortu dutenik. Ulertzen dut pandemia egoeran neurriak hartzea ez dela erraza, baina iruditzen zait arauekin batera laguntzak ere eman behar direla. Agindu dituzte laguntza batzuk eta ia ba iristen zaizkigun.

ENERITZ BURUNZA, Gabi jate-txea

“Ni triste nago. Pentsatzen nuen ordutegia murriztuko zigutela-edo, baina guztiz ixtea ez nuen espero. Lana asko gutxitu zaigu, batez ere, arratsaldeak. Goizez oraindik jendea irteten da erosketak egitera eta etortzen dira kafea hartzera, baina arratsaldetan ez da inor ibiltzen ez tabernetan eta ezta dendetan ere. Jendeak barruetan sartzeko beldurra dauka. Eguneko menuak ere apenas ematen ditugu, enpresetako jarduna ere murriztuta dagoelako eta gurera enpresetatik etortzen ziren asko bazkaltzera. Etxera eramateko janaria prestatzeko aukera badaukagu, baina ni momentuz ez naiz horretan sartu, iruditzen zaidalako ez didala konpentsatzen. Agian hau luzatzen bada hasi beharko naiz, baina, ez dakit. Entzun dut gainera kafea emateko bakarrik zabaltea debekatuta dagoela, eta hori ere ez da justua. Dena dela, kafe asko saldu behar dira gastuei aurre egin ahal izateko. Aurrera begira ere kezkatuta nago. Gabonetarako berriz lagako gaituzte libre jendeak erosketak egin ditzan? Gizakiak gara, eta berriz libre uzten bagaituzte denok bueltatuko gara lehengora eta otsailean berriz ere denok etxera. Eta gainera, berriz ere errua ostalariei botako digute. Zulo batetik irten gabe beste sakonago batean sartuko gara eta kezkatuta nago”.



Zerbitzua ematen ari diren Elgoibarko eta Mendaroko ostalarien zerrenda

IZENA	ZERBITZUA	TELEFONOAK
Aterpe	Oilasko errea, pizzak, hanburgesak, errazioak, ogitartekoak eta plater konbinatua, eskatu eta eramateko.	943 128 074
Bar Celia "Asgi"	Ogitartekoak, errazioak, hanburgesak, plater konbinatuak eta kafeak, eskatu eta eramateko.	943 742 838
El Gautxo	Pizzak, gosariak, plater konbinatuak eta hanburgesak, eskatu eta eramateko.	943 574 947
Gran Siglo Txinatarra	Eguerditan, karta eskatu eta han bertan jaso ahal izango da eskatutakoa. Iluntzetan, eskatu eta etxera eramaten dute eskatutakoa.	943 031 185
IMH-ko taberna	Ogitartekoak, tortillak, tuperrak, kafea eta eguneko menua (Menua: 8€), eskatu eta eramateko	669 647 061
Iturri	Kafea, pintxoak eta bolloak. Astebukaeretan, errazioak eta ogitartekoak, eskatu eta eramateko.	646 663 447
King-Kong	Errazioak eta ogitartekoak, eskatu eta eramateko.	659 326 064
Larre	Pastak eta pastelak, etxeraino, enkarguz (659 335 532). Dendan, kafeak, bolloak, pastelxoak eta ogia, eskatu eta eramateko (943 257 205).	943 257 205
Lerun jatetxea	Menua, kafea, errazioak, pintxoak, ogitartekoak eta gosariak, eskatu eta eramateko.	943 743 196
Mendi-bide	Ogitartekoak, errazioak, hanburgesak eta sandwichak, eskatu eta eramateko.	649 252 511
Otzak	Ogitartekoak, kafeak, gosariak, errazioak, hanburgesak eta tortillak, eskatu eta eramateko.	642 947 128
Pilon	Ogitartekoak, hanburgesak, sandwichak eta errazioak, eskatu eta eramateko.	634 426 869
Salento	Pizzak, kartakoak, menua eta gosariak, eskatu eta etxeraino eramateko.	943 740 196
San Roke taberna	Kafeak, pintxoak, errazioak eta eguneko platera enkarguz. Eskatu eta eramateko.	647 665 325
Tasty chicken Sawarma Donner Kebab	Kebaba, oliaskoak, hanburgesak eta pizzak. Etxeraino eramaten dute.	632 153 679
Txarriduna jatetxea eta hotela	Hotelean, gosariak, eskatu eta eramateko. Jatetxean, menuak, eskatu eta eramateko.	943 748 778
Txohan Kebab	Kebaba, hanburgesak eta pizzak. Etxeraino eramaten dituzte.	943 030 003
Viento Sur	Pintxoak, latak, kafeak, karta eta eguneko platera, eskatu eta eramateko.	943 543 497
Zaharren biltokiko Taberna	Oilasko errea patatekin, eguneko platera, errazioak eta ogitartekoak, eskatu eta eramateko.	943 740 281
Uztargi (Mendaro)	Astean zehar, eguneko platera, eskatu eta eramateko. Asteburuetan, ogitartekoak, kafeak eta garagardo artisaua, eskatu eta eramateko.	943 030 150

Izurriaren dinamika aurreikusteko eta hari aurre egiteko estrategiak diseinatzeko, ezinbestekoa da birusa nola transmititzen den jakitea. Zientzialariek ikusi dute transmisio bide nagusia tantatxo bidezkoa dela, baina gero eta ebidentzia gehiago daude aerosolen bitartez ematen den transmisioa ere kontuan hartu behar dela. Eta Ana Galarragarengana (Zarautz, 1970) jo dugu argibide gehiagoren bila. Zientzia komunikatzailea da Galarraga Elhuyarren. Albaitaritzako eta elikagaien zientzia eta teknologiko lizentziatua da, eta gaur egun zientziaren dibulgazioan dabil buru-belarri, irrastian, telebistan, nahiz idatzizko komunikabideetan. BARRENEK astero zabaltzen ditu haren minutu bateko informazio-piulak *barren.eus* webgunean.

- AINARA ARGOITIA -

▶ ANA GALARRAGA

ZIENTZIA DIBULGATZAILEA
'ELHUYAR'-EN



“Asumitu behar dugu luzez izango dugula birusa gure artean eta hau ez duela txerto batek konponduko”

◆ Birusa aerosolen bidez ere zabal daitekeela ohartarazten ari zaizkigu gero eta zientzialari gehiago. Zer dira aerosolak?

Bai. Izurriaren hasieratik zientzialariek ikusi dute transmisio bide nagusia tantaxken bidezkoa dela. Tantaxka horiek arnasa hartzean eta hitz egitean askatzen ditugu -zer esanik ez kantuan gabiltzanean, edota doministikua edo eztula egiten dugunean-. Gure aho eta sudurretik irteten dira tantaxkak, eta batzuetan ikusi ere egiten ditugu. Beren pisuagatik erortzeko joera daukate, eta horregatik esan ziguten aurreneko gauza izan zen metro eta erdiko distantzia gorde behar genuela gure artean, eskuak eta gainazalak ondo eta maiz garbitu behar genituela eta musukoak jantzi behar genituela, bereziki distantzia gorde ezin zen lekuetan eta espazio itxietan. Kontua da zientzialari batzuek hasieratik zutela susmoa beste transmisio bide bat ere bazela, aerosolen bidezkoa, eta gero eta ebidentzia gehiago daudela transmisio bide hori ere kontuan hartzekoa dela. Horregatik, maskara erabiltzea gomendatzen izatek derrigorrezkoa izatera pasatu da, eta gainera, espazio itxiak aireztatzeko eta ahal diren jarduera guztiak aire librean egiteko gomendatu digute. Baina, berez, aerosolen bidezkoa, ez da beste transmisio bide bat, tantaxkak eta aerosolak gauza bera direlako azken batean. Tamainaren arabera esaten diegu batzuei tantaxka eta besteei aerosol.

◆ Eta gauza bera izanda, zergatik ez da aerosolen kontua ho-

rrenbeste aipatu oraintsu arte, zailagoa delako birusa aerosolen bidez garraiatzea?

Zergatiaz luze hitz egin genezake, baina egia da aerosolen bidez kutsatzea zailagoa dela. Gauza bera dira, bai, baina tamainak bereizten ditu, eta jakina, tamaina handiagoko tantetan birus gehiago garraiatu ahal da. Hori bai, gertatzen dena da tanta handiek pisu handiagoa dutela eta azkarrago erortzen direla lurrrera, eta aldiz, tantaxka nimiñoek, aerosolek, denbora gehiago irauten dutela airean eta gainera urrutiagora iritsi daitezkeela. Hasiere batean ez zitzaion horrenbesteko garrantzia eman horri eta arreta handia jarri zen, aldiz, objektuen bidezko kutsaketan. Horregatik, etengabe garbitzen genituen gainazalak-eta. Orain, maskara gehiagotan erabiltzen dugunez, gainazal-eta tantaxka gutxiago erortzen dira eta gainera ikusi da objektuen bidezko transmisioa, praktikan, oso apala dela. Eta oso-oso argi ikusi den beste gauza bat da aire librean askoz nekezago kutsatzen garela. Ageraldi gehien-gehienak beti barruetan gertatu dira, eta horrekin batera ikusi da leku itxietan oso kontuan hartu behar direla aerosolak.

◆ Zergatik ez zitzaion horrenbesteko garrantzia eman aerosolei?

Batez ere birusaz kutsatuta zeudenengandik oso hurbil zeudenak kutsatzen zirelako. Horregatik jarri zuten fokua tantaxketan. Baina gero ikusi zuten kantuan egiten den lekuetan edo ariketa fi-

“Osasuna sistema ekonomiko-politikoaren menpe dago eta horregatik ez da erraza aerosolen bidezko transmisio arriskua arauetara eramatea”

sikoa egiten den leku itxietan aerosolen bidezko transmisioa gertatzen zela, oso sakon hartzen dugulako arnasa. Horregatik sartu dute leku itxiak sarri aireztatzea arauetan. Eta niretzat hala behar du izan gainera, baina arau gisa ezartzen dutenean, maskara jantzera eta lokalak aireztatza

behartzen gaituztenean, baliabide ekonomikoak ere eman behar dituzte, neurri horiek benetan eta egoki aplikatu ahal izateko. Bestela, bete ezin den zerbait ari direlako eskatzen eta hori ez delako posible. Ez da nahikoa esatea: ‘Egin ezazue hau’; nola egin azaldu behar dute. Eta adibide argi bat jarriko dizut: telelana. Berez, irtenbide egokiena da lantokietako transmisioa eragozteko. Lan guztietan ez da posible, baina askotan bai. Kontua da ez badira baliabideak jartzen, arrisku handia dagoela langilearen bizikaltatea okertzeko, harreman-sareak desegiteko, eta emakumea are gehiago zamatzeko etxeko lanekin. Neurriek, beraz, baliabide eta laguntzekin lagunduta etorri behar dute.

♦ **“Zentzugabekeriaren gorenara da kalean maskara jantzita ibiltzea eta barrura sartzean kentzea”, irakurri genion Alex Arenasi, epidemien modelizazio matematikoan adituari. Zer diozu? [Elkarrizketa egin biharamunean lanean maskara jantzea derrigortu zuten].**

Bai. Nik uste dut oso gaizki ulertu ditugula gauzak. Baina ulertu ditugu gaizki, hein handi batean agintariek eurek ere oker komunikatu dutelako. Arauak ezarri dizkigute, baina ez dizkigute behar bezala azaldu arau horien zergatiak eta nahasmen handia sortu da. Ulertu izan bagenu ondo zertarako jantzi behar dugun maskara, konturatuta geundeko askoz inportanteagoa dela justu maskara jantzea nahitaezkoa izatea barruan eta ez kanpoan. Kanpoan behartuta gaude eramatera, arau hori jarri dutelako, baina erabat zentzugabea da mendi puntan eta bakarrik zaudela maskara jantzea. Nik uste dut kontraesan horiek sortzen dutela nahasmena. Beraz, nik esango nuke barruetan nahitaez jantzi beharko genukeela maskara, geure buruak ez eze, ingurukoak ere babesteko.

♦ **Eta beharbada lehen esan duzun baliabideak jarri behar horregatik dute horrenbesteko erresistentzia Osasunerako Mundu Erakundeak eta abarrek aerosol bidez ere kutsa daitekeela onartzeko?**

Bai, argi eta garbi. Aerosolen bidez kutsa daitekeela onartzeak behartzen gaitu gauza askoren inguruan pentsatzera. Eta Hezkuntzan gertatzen dena da horren adibidea. Erabat logikoa da hezkuntzako eragileek baliabideak eskatzea administrazioari, ratioak gutxitu ahal izateko. Zergatik? Bada, gakoa delako. Garbi ikusten da osasuna sistema ekonomiko-politikoaren menpe dagoela eta horregatik ez da hain erraza aerosolen bidezko transmisio arriskua arauetara eramatea. Eta Espainiako Gobernuak atera zuen dokumentu bat da horren adierazle garbia. Dokumentu hartan oso ondo azaltzen zuten lehenengo olatuan zer gizarte alda

gaik eragin zuten pertsona edo kolektibo jakin batzuk kalteberagoak izatea. Deigarria eta adierazgarria zen txostena. Argi zioen ekonomikoki zailtasunak dituztenak, LGTBI kolektibokoak, adinekoak, buruko gaixotasunak dituztenak, espetxetan daudenak eta abar zirela zaur

garrienak. Haien zirela birusaz kutsatzeko arrisku handiena zutenak, eta behin kutsatuta, haien zutela okerrera egiteko eta hiltzeko arrisku handiena. Dokumentuaren bigarren zatian, hainbat gomendio jaso zituzten, hori saihesteko.

♦ **Gomendioak; ez arauak.**

Hori da. Gomendio hutsak ziren. Zergatik? Ez daukatelako tresnarik gomendio horiek arau bihurtzeko. Aerosolen kasuan antzekoa gertatu da. Batetik dago hori, eta bestetik dago fisikariak egiten dituzten simulazio guztiak mundu edo egoera ideal batean egindakoak direla eta bizitza erreala ez dela horrelakoa. Bizitza errealean, tantak eta aerosolak ez dira horren argi bereizten, korranteak daude, jendea mugitu egiten da eta espazioak era askotarikoak dira. Beraz, diseinutik errealtateara aldea dago eta denbora asko joan da laborategian ikusi dutena errealtatean zenbateraino ematen den ikusi den arte.

♦ **Zein litzateke benetako adibideetako bat?**

Txinan gertatutakoa da bat, maskararen erabilera derrigorrezkoa ez zenean. Egia da ikerketa hark bazituela hutsune batzuk eta izan zitekeela beste modu batean kutsatu izana ere haien. Bi autobus ziren, ordubete eskaseko bidaia egiten zutenak. Batean, birusaz infektatutako lagun bat zihoan, eta bestean, ez. Beren bidea egin zuten bi autobusek, eta ikusi zuten kasu positiboa zihoan autobusean beste asko kutsatu zirela, infekzioa zeukan pertsonarengatik urruti egon arren. Aldiz, autobus berean leiho eta ate ondoan jarrita zihoazenak, aire natural apur bat bazutenak, ez ziren kutsatu. Kasu paradigmatikoa da, erakusten duena leku itxi batean birusa askoz urrutirago iritsi daitekeela.

♦ **Aireztatzeak nolako izan behar du?**

Aireztatze egokia izango litzateke korrantea sortzea ahalbidetzen duena, baina negua dator, eta esatea errazagoa da. Parez pare dauden leiho eta ateak zabaltea litzateke idealena, eta ezin denean, alde bakarreko aireztatzea bermatu beharko genuke. Ezin bada, lokalak ez baldin badu kanpora ematen duen aterik edo leihorik, beste sistema batzuk bilatu behar dira aire naturala sartzeko. Lortu behar duguna da aire garbia sartzeko, ahalik eta maiztasun handienarekin eta berzirkulaziorik ez gertatzea. Leku batzuetan, eskola jakin batzuetan-eta, hasi dira CO₂a neurtzen duten aparatuak erabiltzen. CO₂a da guk botatzen dugun gasa eta horrek erakusten digu zenbateraino ari den “kargatzen” lokala eta noiz behar den airea berritzea. Horrekin lortzen duguna da airea berritzea, ateak eta leihoak uneoro zabalik izan gabe. Ideala, baina, bestea da: uneoro korrantea egotea. Badaude, era berean, filtroak airean dauden partikula guztiak xurgatzen di-

Jarduera-mota eta -maila	Jende gutxi			Jende asko		
	Kanpoan, ondo aireztatuta	Barruan, ondo aireztatuta	Aireztapen eskasa	Kanpoan, ondo aireztatuta	Barruan, ondo aireztatuta	Aireztapen eskasa
Maskarak jantzita, epe laburreko kontaktua						
Isilik	Txikia	Txikia	Txikia	Txikia	Txikia	Handia
Hitz egiten	Txikia	Txikia	Txikia	Txikia	Txikia	Handia
Oihuka, kantuan	Txikia	Txikia	Handia	Handia	Handia	Handia
Maskarak jantzita, epe luzeko kontaktua						
Isilik	Txikia	Handia	Handia	Txikia	Handia	Handia
Hitz egiten	Txikia	Handia	Handia	Handia	Handia	Handia
Oihuka, kantuan	Txikia	Handia	Handia	Handia	Handia	Handia
Maskararik gabe, epe laburreko kontaktua						
Isilik	Txikia	Handia	Handia	Handia	Handia	Handia
Hitz egiten	Txikia	Handia	Handia	Handia	Handia	Handia
Oihuka, kantuan	Handia	Handia	Handia	Handia	Handia	Handia
Maskararik gabe, epe luzeko kontaktua						
Isilik	Txikia	Handia	Handia	Handia	Handia	Handia
Hitz egiten	Handia	Handia	Handia	Handia	Handia	Handia
Oihuka, kantuan	Handia	Handia	Handia	Handia	Handia	Handia

Transmisio-arriskua
 Txikia ■ Ertaina ■ Handia ■

* Mugako kasuetan eragin handia dute distantziak, pertsona-kopuruak eta esposizio-denborak

Asintomatiko batek birusa transmititzeko duen arriskua adierazten du koadroak. *British Medical Journal*ek egin eta Elhuyarrek itzuli du.

tuztenak, tartean birus partikulak ere bai, baina gertatzen dena da ehun euro balio dutela. Eta lehengora bueltatzen gara: arauak jartzen dituztenei baliabideak eskatu beharko genizkieke.

◆ **Maskarak zenbatean babesten du leku itxietan?**

Asko-asko. Berez, kanpoan, ez bada jende askoz inguratuta gaudela eta denbora asko pasatzen dugula norbaitekin parez pare hizketan, maskara ez da horren beharrezkoa. Imaginatu bi lagun gaudela hondartzan edo parke batean isil-isilik, umeak nola jolasten diren ikusten. Berez, hor ez dago arriskurik. Espazio itxietan, baina, maskara babes handia da.

◆ **Birusa aerosolen bidez ere transmititzen dela jakinda, zantalza sortu zaigu lantokian. Zer motatako maskarak erabili beharko genituzke espazio itxietan?**

Maskarez ari garela bi kontu daude aintzat hartzekoak: tekniki zer babes ematen duten eta nola erabiltzen ditugun. Eztabai-daezina da FFP2ak direla ondoen babesten dutenak. Onenak dira norbera infektatuta baldin badago besteak ez kutsatzeko, bai eta norbera kanpotik datozkigun birusetatik babesteko ere. Kirurgikoek babes mugatua ematen dute, eta bereziki onak dira guk besteak ez kutsatzeko. Kontuan izan behar dugu ospitaleetan eta normalean erabiltzen dituztenak kirurgikoak direla eta hortik da-

torkiela izena ere. Pentsatzekoa da, beraz, txart-xarrak ere ez direla. Bestetik, maskara higienikoak dauzkagu. Oihalezkoak izaten dira, eta filtradunak eta filtro gabeak daude. Horiek erabilera mugatua dute, eta garbitualdi kopuruaren eta erabiltzen duten iragazkiaren arabera da ematen duten babes, baina jakina, ezer eramatea baino hobeto da maskara higienikoa jantztea ere. Berrerabili egin daitezkeela da duten abantaila; hondakin gutxiago sortzen dugula. Garrantzitsua zer da? Espazio itxietan denek erabiltzea musukoa. Arrisku-margen bat maskara guztiak dute, baina pareko denek musukoa jantzita badute, ez dago arriskurik. Ez nago seguru *The Lancet*en izan zen edo beste aldizkari espezializatu batean argitaratu zuten artikulua, baina esaten zuena zen maskarak eremu sanitariotik kanpora eramateko oso inportantea zela jendeak gauza normaltzat ikustea; ez ikustea maskara oso gauza teknikitzat, alegia. Askoz errazagoa dela, esaterako, amak edo lagun batek josi diguna erabiltzea, ehuneko

“Portaera zientzietan adituak direnak behar dira komunikazio kanpaina eraginkorrak, gardenak eta ulerterrazak diseinatzeko”

ehunean homologatua den maskara teknikoago bat erabiltzea baino, errazago jantziko dugulako gure sentitzen duguna. Denek jantztea eta maskararen erabilera egokia egitean dago hemen gakoa. Ez kentzea jateko edo hitz egiteko, jendearekin gaudenean. Bestela, pentsa une batez zer nolako inbertsioa egin beharko genu-

keen etxe batean denok FFP2ak erabiltzeko. Pentsatu behar dugu hau luzerako dela eta jendeari erraztasunak eman behar zaizkiola.

◆ **Isiltasuna aipatu duzu. Zergatik da garrantzitsua?**

Aldagai garrantzitsua da bolumenarena. Ozenago hitz egitean tanta gehiago askatzen ditugu eta handiagoak.

◆ **Etxeko konfinamendua eskatu dute hainbat mediku eta zientzialarik. Saihestezina ere bazirudien joan zen astean, baina momentuan, ostalaritza itxi eta gure mugikortasuna ere gehiago mugatzera mugatu dira.**

Bai, eta sentitzen dut pila bat ostalaritzan ari direnengatik, baina iruditzen zait ostalaritzak pentsatu beharra duela nolabait nola bihurtu seguru euren espazioak. Seguru nago ahalegin guztia egiten dutela, beraiek direlako lehenengo interesatuak lanean jarraitzeko, baina nire ustez, portaera zientzietan edo gizarte zientzietan adituak direnak behar ditugu arriskuak saihesteko zer egin behar dugun ondo komunikatzeko. Garbi dagoena da kafea kanpoan hartzeko aukera dagoenean taberna barrura sartzeak ez daukala zentzurik. Hartu terrazan, ez sartu barrura, mesede bat egingo diozulako zeure buruari, bai eta ostalariari ere.

◆ **Ardura kolektiborako deia egin dute eta gauden egoerara iritsi izana gizarte osoaren porrota izan dela ere esan digute.**

Nik ez dut bat egiten hau gizarte osoaren porrota izan dela dioen diskurtso horrekin. Arduratsu jokatu behar dugu, bai, baina bakoitzak bere ardurak eta erantzukizunak ditu. Komunikazioan huts egin da, eta birusaren kontra egiteko estrategian ere bai. Estrategia diseinatu zutenek argi jaso zuten paperean testak erruz egiten hasi beharra zegoela, kasuak lehenbailehen detektatzeko. Kutsatuak identifikatu behar ziren eta haiei birusa nondik iritsi zitzaizen aztertu, transmisio-katea azkar eteteko. Estrategia, berez, egokia zen, baina estrategia hori gauzatzeko baliabideak jarri behar ziren eta hori da egin ez dena. Beraz, gizartearen porrota izan da hau? Ez. Nire esku ez zegoen transmisio-katea eteteko baliabideak jartzea. Ezin da zama hori gizarte osoaren gain utzi, ardura ez denean gizarte osoarena.

◆ **Datuak oso dira kezagarriak eta egoera lehertzearegon daitekeela ere ohartarazi dute batzuek, kasuen biderkadura esponontziala delako eta osasun sistema ari delako arriskuan jartzen.**

Eta horra da iritsi behar ez ginenera: ospitaleak eta lehen arretako unitateak kolapsatzera. Horretarako da ezinbestekoa kasuak lehenbailehen detektatzea eta transmisio-kateak ahal den azkarren etetea. Ez daukagu panorama onik. Ez dago izurriak apaltzera joko duela pentsatzeko ebidentziarik eta ez zegoen uda aurretik ere. Begira, pandemia hitzak oso ondo adierazten du zein larria den gertatzen ari dena eta pandemia egoeran ezin dira zabaldu diren mezu batzuk zabaldu. Asumitu behar dugu luzez izango dugula birusa gure artean eta hau ez duela txerto batek konponduko. Hori da egiten ari diren beste oker handi bat: erreala ez den zerbaitean ari gara jartzen itxaropen osoa, baina txertoa lortuta ere hau ez da konponduko eta hori oso frustagarria izango da. Eta

kontuz horrekin, promesa faltsuek sortzen duten haserre eta egoenezina oso zaila izaten delako kudeatzeko. Badauzkagu antzeko esperientziak aurretik eta niri beldurra ematen dit horrek.

◆ **Zer da egin beharko genukeen aurreneko gauza egoera onbideratzeko?**

Mezua zuzendu behar dugu: txertoak ez digu konponbiderik ekarriko. Batetik, baliabideak jartzeko eta ardura handiagoz jokatzeke eskatu behar diegu arduradunei, hau ez delako espaziotik iritsi zaigun zerbaite. Hau ez da tsunami bat ere, denoi neurri berean eragiten digun zerbaite, eta hor lan handia dago egiteko. Eta bi: portaera-ohiturak aldatu behar ditugu. Ez dakit iritsiko den, baina bigarren olatu hau konfinatuta pasatzeak ere beldur handia ematen dit, kalera irteteak Gabonekin koinzidentiko lukeelako eta nahiko genukeelako, udan bezala, lagunekin eta senideekin elkartu. Aurten, Gabonak ezingo ditugu normal pasatu.

◆ **Eta barneratu ahal dugu hori?**

Nola izango dugu ba barneratuta, ez badigute esan! 'Jokatu dezagun orain arduraz Gabonak salbatu ahal izateko', esan digute. Gabonetara egoera hobean iritsi ahal izateko neurriak hartzea ezinbestekoa dela zabaldu dute agintariek eta kontraesana ez ezik, arriskutsua ere bada mezu hori. Ezagunek esaten didate oso ezkor hitz egiten dudala, baina gezurrik ezingo dugu ba esan!. Gehien maite ditudanei ere ari naitzaie esaten ezin garela elkartu. Erabat injustua iruditzen zait zabalitzen ari den mezua zabaltea, gure gurasoen belaunaldientzako ilusiorik handiena horixe delako: Eguberrietan familia osoa elkartzea mahai baten bueltan. Baina, hori, aurten, ezingo da.

◆ **Argazkilari profesional bati baino gehiagori irakurri diogu ezin izan dutela egoeraren gordina jaso argazkitan. Errealitatea leundu nahi bat ikusi dute eta horrek min handia egin duela diote. Zer egin beharko genuke?**

Eta hala da. Nazkatuta nago egunero datuak entzuteaz, esan gabe nondik datozen datu horiek eta zeintzuk dauden horien atzean. Nik entzun nahiko nitzuke gaixotasuna gaingitu duten gehiagoren testigantzak. Guri zenbakiek ezer gutxi esaten digute: ez gara jabetzen zein dimentsio duen honek. Hegazkin batean sartzen diren adina lagun hiltzen dira egunero, baina jakina, ez dakigunez zeintzuk diren, nongoak diren... urrutiko egiten zaizkigu. Beste kontu batek haserre ere banauka. Gazteak kriminalizatzen dituen kanpainaz ari naiz. Estigma eta kulparekin gauza bakarra lortuko dugu: infektatuta dagoen jendeak ez aitortzea; ezkutatzea. Eta hori oso da arriskutsua. Benetan diotsut: portaera zientzietan adituak direnak behar ditugu hemen komunikazio kanpaina eraginkorrak, gardenak eta ulerterrazak diseinatzeko.

◆ **Aipatu dugu zeharka, baina galdera zuzena orain. Beharrezko ikusten duzu etxeko konfinamendua ezartzea berriro?**

Gauzak oso gaizki egiten ari garen seinale oso garbia litzateke hori, nire ustez. Horrek argi eta garbi erakutsiko luke ez gara gai izaten ari egoera hau bideratzeko eta hori ez da izango jendea ez delako arduratsua, baizik eta ezartzen diren neurriak eta baliabideak ez direlako inondik inora nahikoak.

Juan Cruz Sol hil da, Valentzia eta Real Madril taldeetan aritutako futbol jokalaria elgoibartarra



Elgoibarrek eman duen futbolari handienetakoa hil zen martitzenean. 73 urte zituela zendu zen Juan Cruz Sol, Valentzian, mitotzat daukaten hirian. Solek C.D. Elgoibarren hasi zuen futbol ibilbidea eta goiz hasi zen nabarmentzen, Valentzia taldeko ikuskatzaile batek 16 urte zituenean fitxatu baitzuen, artean jubena zela. Valentzian ez zuen denbora asko behar izan bere dohainen berri emateko eta 17 urterekin egin zuen debuta Lehen Mailan. Lorpen handiak eskuratu zituen, besteak beste, Liga txapelketa bat (1970-1971) eta Errege Kopa bat (1966-1967) irabazita. Tituloak irabazteaz gainera, zaleen bihotza irabaztea lortu zuen, eta Mestallan jokatu duen klase handieneko defentsatzat daukate han. Real Madrilek fitxatu zuenean ere, zaleek ez zuten gaizki hartu, Solek eginiko lan onaren saritzat baizik. Santiago Bernabeu presidentek 30 milioi pezeta ordaindu zituen 27 urteko defentsa fitxatzeko, ordura arte inoiz egindako fitxaketarik garestiena. Solek lau denboraldi egin zituen talde zurian, 1975etik 1979ra. Madrilen Ligako hiru titulu eskuratu ostean, Valentziara itzuli zen berriro, bere futbolari ibilbideko azken bi denboraldiak jokatzera. Horiek ere emankorrak izan ziren, Europako Superkopa bat eta Europako Futbol Errekopa irabazi baitzituen Alfredo Di Stefano entrenatzaile zela, nahiz eta belauneko lesio baten ondorioz Solek ezin izan zion taldeari nahi beste lagundu. Espainiako selekzioarekin 28 partidur jokatu zituen eta gol bat sartu zuen. Solek Espainiarekin Herbehereetako futbol selekzioaren aurka jokaturako partida bat aipatzen zuen bere oroitzapen onenez galdetzen ziotenean, Espainiako selekzioko kapitaina izan baitzen bera eta Johan Cruyff Herbehereetakoa. 33 urterekin erretiratu zen.

Valentzia taldearen enbaxadore

Futbolari ibilbidea amaitutakoan Valentzian gelditu zen bizitzen eta talderako lanean jarraitu zuen. Taldeko delegatua izan zen makina bat urtean, eta 2013az goerotik Valentziako administrazio-kontseiluko kidea zen eta erakundearen harremanetaz arduratzen zen. Kargu horiez gainera, Valentzia taldearen enbaxadore modukoa izan da azken urteetan. Chelsea futbol talde ingelesarentzat ere lan egin zuen Solek 2006tik aurrera. Londreseko taldeak Espainian zuen ordezkaria izan zen, eta bere lana 15-16 urteko jokalaria gazteak ikusi eta harribitxiak beste inork baino lehen aurkitzea.

Etenda zeuden kirol ikastaroak berriro martxan

Osasun Sailak urriaren 23an jakinarazi zuen agindua indarrean sartzearekin bat, bertan behera laga zituzten Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko ikastaroak. Osasun Sailak, baina, agindu hori aldatu eta kirol ikastaroak berriro martxan jartzeko aukera eman zuen urriaren 26an. Alabaina, Udal Kirol Patronatuak birusa ez hedatzeko asmoz, bi aste hauetan, kirol jarduerak etenda mantendu ditu. Eusko Jaurlaritzako dekretuek kirol jarduerak baimentzen jarraitzen dutenez, Udal Kirol Patronatuak, "agindu berririk iritsi bitartean", kirol ikastaroak berriro martxan jarri zituen joan den astelehenean. Sei pertsonako azpitaldeak osatuta arituko dira ikastaroetan, segurtasun distantzia mantenduz eta ikastaro guztietan, spinning, yoga eta bestelakoak ere bai, musukoa erabiliz, Osasun Sailak hala derrigortzen baitu. Interesa dutenek olaizagaharrera@hotmail.es helbidean eman beharko dute izena.

Mendi zinemagintzako film onenak Herriko Antzokian

Pandemiaren eraginez, Morkaiko mendizale taldeak bertan behera laga behar izan ditu 2020. urterako prestatura zituen irteera eta ekitaldi guztiak, tartean zapatu honetan, azaroaren 14an, jokatzekoa zen Karakateko igoera. Egutegian mantendu duten ekitaldi bakarra Mendi Tour izango da. Bilbao Mendi Film Festivaleko Alpinismoko eta Eskaladako film onenak emango dituzte, azaroaren 20an, Herriko Antzokian (19:00). Iazko edizioan sarituak izan ziren eta gehien nabarmendu ziren filmak erakusten dira Mendi Tourrean. Honako hauek aurtengoan: *Harria Herria*, *Nebula*, *Allein (Alone)* eta *Climbing Blind*. Sarrerak 4 euroan jarriko dituzte salgai egunean bertan Herriko Antzokiko lehiatilan, 18:30etik aurrera.

Jolasetik 'Didaktika' egin du



Aitor Etxeberria herriko margolari eta eskulturagilearen obra batek egingo die ongi-etorria aurrerantzean Mendarora iristen direnei. 'Didaktika' izena eman dio artistak lanari eta martitzenaz geroztik herriko sarrerako biribilgunean dago, apartetik ikusteko moduan, pisu eta tamaina handikoa baita eskultura. Arte moderno eta garaikideko lehen alea da Mendaron eskultura hau, bai eta Aitor Etxeberriak berak herriko espazio publikoan jarri duen estreinakoa ere.

- AINARA ARGOITIA -

Mari Jose Telleria zinegotzi sozialistaren proposamenaz jaso zuten 2020ko aurrekontuetan Mendaron Aitor Etxeberriaren obra bat jartzea. 30.000 euroko partida onartu zuten aurrekontuan, eta dagoeneko ikusgai dago instalazioa, nagusiki zementuz eta korten altzairuz egindako hiru pieza batzen dituen. Martitzen goiz osoa eman zuten Asketako langileek obra jartzen eta artistak berak zuzendu zituen lan horiek. *Barren.eus* webgunean daukazue bideoa ikusgai.

Etxeberriak azaldu du 2019ko azaroan enkargatu ziola Udalak eskultura, eta berehala ekin ziola zirriborroak egiteari eta aurrez eginak zituen maketak erreparatzeari, jakin gabe ondo herriko zein espaziotan kokatuko zuten. Aukera ezberdinak aztertu zituen, zehaztu zioten gero lekua ere, eta bi proiektutan hasi zen lanean, aldi berean. Bietako bat, baina, hasi eta gutxira baztertu behar izan zuen, aurrekontura ekarri

ezin zuela ikusita. Jolasa eta geometriaren arteko harremana irudikatzen duen proiektuarekin egin zuen aurrera azkenean. "Jostailuek, normalean, forma geometrikoak izaten dituzte, eta nik oso ohikoak ez diren bi jolas aukeratu ditut: diaboloa eta bola. Bien arteko harremana bilatu dut eta bi forma horiekien sortu dut instalazioa. Beste leku baterako ikusten nuen ego-kiagoa, baina egia da herrian ditugun espazioak asko itxiko lituzkeela tamaina honetako obra batek". Diaboloa irudikatzen duten bi piezak eta parez pare jarri duten forma bertikaleko hirugarren pieza, bolo-jokoko pieza izan zitekeena, zementuz eta korten altzairuz egin ditu, baina bolok badu halako beirazko tapaki bat gainean. "Nire lana bukatu da. Orain, espero dudana da denborak eta eguraldiak berea egi-tea, eskultura horren parte ere badelako. Denborarekin eta klimatologiaren eraginez obrak beste kolore batzuk hartuko ditu", zehaztu du artistak.



▶ ANDER MUJIKA

TESTURA

Napoka Iria desegin ostean hainbat musika proiektutan aritu izan da Ander Mujika, baina denbora baten ondoren, kaxoian gordeta zituen zirriborroak atera eta oso berea izango zen proiektu bat marrazten hasi zen. 2017 eta 2019. urteen artean egindako zirriborroen artean garbiketa egin zuen; batzuk txukundu, besteak landu eta beste batzuk bere horretan laga zituen. Guzti horretatik sei pieza eta kantu bat sortu zituen. Bakarka hasi zen lanean, baina proiektua osatzeko Felix Buff musikariarekin batu zen, eta ondoren, Johannes Buffek borobildu zuen soinu aldetik. Maialen Belaustegik musikari irudiak jarri dizkio. Hori guztia da Testura, eta datorren egunean aurkeztuko dute Herriko Antzokian, 19:00etan.

- AINHOA ANDONEGI -



Maialen Belaustegi, Ander Mujika, eta Johannes eta Felix Buff anaiak.

“Gure partetik dena jarriko dugu Elgoibarko ikusleek emanaldiaz gozatzeko”

◆ Egunean aurkeztuko duzu Elgoibarren Testura proiektua. Noiz eta nola sortu zenuen?

Orain dela bizpahiru urte hasi nintzen proiektu honetan. Ordurako Napoka Iria utzita geneukan eta bestelako musika proiektu batzuetan nenbilen musikari. Eta batetik edo bestetik, gordeta nituen hainbat musika bozeto eta ideia kaxoian, eta kaxoi hori irekitzea pentsatu nuen. Grabazio, bozeto eta ideia guztiak atera nituen eta haiekin hasi nintzen lanean. Batzuk atontzen hasi nintzen, beste batzuk zuzenean baztertu nituen, eta beste batzuk zeuden bezala utzi nituen, gustatzen zitzaidalako nola zeuden. Horrela joan nintzen poliki-poliki diskoa sortzen. Martxoan kaleratu genuen eta aurkezpena ere mar-

txorako geneukan aurreikusita, baina etxeratzeak harrapatu gintuenez, urrira atzeratu behar izan genuen.

◆ Sei pieza eta kantu bat sartu dituzu diskoan. Zer dela eta egin duzu pieza eta kantuen arteko bereizketa?

Diskoak forma nahiko abstraktua hartu zuen; soinu banda moduko bat dela esan daiteke, eta soinu piezak ez dira ohiko kantu klasikoak, ez daukate kantuek izaten duten estrukturarik. Ez daukate ahotsik, estribillorik edo estrofarik, nolabait esateko. Beste mota bateko sonoritate bat daukaten musika piezak dira. Horrekin batera, baina, baneukan diskoan kantu bat sartzeko gogoia ere, pop estiloan, bere melodiarekin, estribilloarekin... Denok ezagutzen dugun kantu forma

duen abesti bat sortu nuen, eta hori ere sartu dugu diskoan. Orduan Anarirekin nenbilen lanean eta esan nion gutxigora-behera zeri buruzko kantua nahi nuen eta berak idatzi zuen.

◆ Bakarka hasi zinen lanean, baina azkenean laukotea osatu duzue. Zer delata eta?

Bakarka hasi nintzen, oso nirea zelako proiektua, baina kontrapunturik gabe, bakardadean egindako lanak perspektiba galtzen duela iruditzen zait, eta nora jo ez dakizula gera zaitezke, galduta. Nik kontrapuntu baten beharra sentitu nuen, eta Felix Buff musikariarengana jo nuen. Berako baterijolea da, eta hainbat talde-tan jo izan dugu elkarrekin. Lagunak gara eta ondo ulertzen dugu elkar musika kon-



tuetan. Nire asmoak azaldu nizkion, eta berak lagundu zidan proiektuarekin. Gero bere anaia Johannes ere batu zitzaigun eta berak borobildu zuen lana.

◆ **Musika prestatu ostean, irudia gehitu zenioten eta horrela iritsi zen laugarren kidea taldera.**

Hasieratik neukan buruan irudiak sarztearen kontua. Azken batean, kontzertu bat entzutera doana, ikustera ere badoa. Sortu dugun musika motagatik eta formatuagatik, ez zitzaidan oso interesgarria iruditzen ikuslearentzat. Oholtza gainean bi tipo botoiak sakatzen ikustea ez da oso erakargarria; gure emanaldia berez ez da bisuala. Horregatik pentsatu nuen musikari laguntzeko irudiak sartzea. Transparentzien proiektore batekin hasi ginen probatzen eta Maialenek sortzen du material desberdinekin, pieza bakoitzari dagokion irudia. Musika eta irudia uztartu ditugu.

◆ **Zer nahi izan duzu transmititu musika pieza horiekin?**

Soinuekin baino gehiago oraingoa

testurekin jolastu dut, eta nahiko modu intuitiboan irten zaizkit piezak. Kuadro bat pintatzea izango balitz bezala, zertzelada desberdinak emanez konbinatu ditut testurak eta nahiko pieza abstraktuak irten zaizkit.

◆ **Proiektu berria eta berritzailea da, orain arte egin duzunetik oso bestelakoa.**

Bai. Orain arte musika izan da nire ogibidea, baina duela urtebete ingurutik Azpeitiko Kulturaz kooperatiban dihardut lanean, eta agian horrek eman didan askatasunagatik-edo, zerbeit desberdina eta askea egin nahi nuen, beldurrik gabe. Esperimentatzeko eta gauza berriak probatzeko gogoia neukan, eta gorputzak eskatzen zidana egin dut.

“Esperimentatzeko eta gauza berriak probatzeko gogoia neukan eta gorputzak eskatzen zidana egin dut”

◆ **Zu emaitzarekin gustura zaude, eta ikusleak? Zer jaso duzu ikusleengan-dik?**

Bi emanaldi egin ditugu momentuz, eta komentario oso positiboak jaso ditugu ikusleen partetik. Soinu aldetik berezia da, eta pantaila handi batean proiektatzen dugu irudia. Ikusleek begiak itxi eta bidaiaria moduko bat bezala bizi izan dutela esan digute. Emanaldi bakoitzak bere modura gozatzeko aukera ematen du. Askotan asko teorizatzen dugu, eta jende askok uste du ez duela musikaz ulertzen, baina askotan ez dago ulertu beharrik, gustatzen zaizu edo ez, eta punto. Garrantzitsuena da jarrera positibo batekin joatea emanaldira, gozatzera. Musikan eta artean, oro har, garrantzitsuena gozatea da, ikusten ari zarenak transmititzen dizun edo ez, eta ez da hain garrantzitsua ulertzea.

◆ **Etxean joko duzu eguenean. Zer sentitzen duzu?**

Etxean jotea beti da berezia, eta apur bat urduri banago. Nahiko nuke jendea aurreiritzirik gabe etortzea, nor bere buruari gozatzeko aukera emanez. Gure partetik ahal dugun guztia egingo dugu ikusleek gozatu dezaten.

◆ **Oholtza gainean dagoen artistarentzat garrantzitsua izango da ikusleen aurpegia ikustea, gustura dagoen edo ez jakiteko. Ikusleak musukoekin duedela, nola lortzen duzue transmisio hori?**

Oso-osoa zaila da. Azpeitin aurkeztu genuenean diskoa gertatu zitzaidan gauza kurioso bat: nire lanean murgilduta nengoen, nire aparatuetan kontzentratuta eta halako batean jaso nuen burua eta jende guztia ikusi nuen serio-serio, denak distantziara eta maskara jantzita. Inpakatu egin ninduen. Publikoa ere kontzertuetako parte da, eta orain oso urrun sentitzen dugu publikoa. Dena hotzagoa da eta zaila da ikusleekin kimika sortzea. Jendearen irribarrea eta aurpegia ez ikusleek egoera zaildu egiten du.

◆ **Koronabirusak nola eragin dizue?**

Beste gremio batzuetan bezala, gurean ere kalte handia eragin du. Kontzertu eta emanaldi asko geratu zaizkigu bertan behera eta kulturgileak oso egoera gogorren daude. Nire kasuan, sustengu ekonomikoa orain beste alor batetik dator, eta pertsonalki nahiko ondo nago, baina badiut egoera larrian dauden lagunak. Lehendik ere prekarioa zen sektorea gogor jo du koronabirusak. Ez da kontratazioa eten dela bakarrik, orain mugikortasunaren muga ere gehitu behar diogu egoerari. Batetik ikusleek desplazatzeko dituzten zailtasunak daude, baina gure taldeko bi iparraldekoak dira eta haiek ere baimen bereziak behar dituzte kontzertuak ematera mugitu ahal izateko. Dena konplikatzen da, baina honetatik ere irtingo gara. Ostalaritza ere gaizki dago, baina sentsazioa daukat azkenaldian ostalaritza bakarrik hitz egiten dela eta hemen sektore asko eta asko daude larri.

LANA.....**Eskaerak**

Langile euskalduna behar dugu hilean bi aste-buruz, goizetan, adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.

☎ 615 006 733

Gurekin bizitzeko etxeko langilea behar dugu, adinekoak zaintzeko. Euskalduna. Laguntza izango luke.

☎ 615 006 733

Zubacor lantegian CNC tortuko langile bat behar dugu. FANUC kontrolean esperientzia baloratu da. Behin betiko lan-kontratu. Harremanetarako: zubacor@zubacor.com

☎ 943 740 844

Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile moduan aritzeko prest.

☎ 631 677 339

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile moduan aritzeko prest.

☎ 632 238 016

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan, edo orduka. Gavez ere bai. Titulua eta erreferentziak ditut. ☎ 602 490 595

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Erreferentziak ditut.

☎ 631 439 959

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Arduratsua naiz eta esperientzia daukat. Etxeko langile moduan edo asteburuetan egingo nuke lan. Arropa lisatu, sukaldatu, botikak eman... denerako prest.

☎ 632 355 103

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz eta titulua daukat.

☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo asteburuetan.

☎ 632 108 280

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut.

☎ 688 735 551

Adinekoak zaintzeko prest, etxeko langile moduan.

☎ 643 977 786

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz.

☎ 660 511 781/943 742 330 (Elena)

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak ere egiten ditut. ☎ 602 123 942

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean zaintza lanak egiteko ere bai.

☎ 632 421 912

Edozein lan egiteko prest nago. Agiriak ditut.

☎ 631 895 039

ETXEBIZITZAK.....

Bikote elgoibartarrak arrazoizko prezioa duen pisua hartuko luke alokairuan. Etxe baten jabea bazara edo norbait ezagutz gero deitu mesedez. ☎ 619 966 696

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Premiazkoa. ☎ 641 359 024

2 logelako etxebizitza alokagai, Deban. Azarotik ekaina erdialdera bitartean.

☎ 669 339 529

GARAJEAK.....

Garajea salgai Mendaron, Azpilgoeta auzoan. Handia da, argitsua, ur-sarrerarekin eta ate automatikoa. Kalera ematen du eta sarbide erosoa du.

☎ 695 730 442

Garaje marraduna alokatzen dut Ikastolako frontoiaren alboan. ☎ 618 384 319

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erreturatua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiarri erreturatua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores

Consejo Basco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzko Erregeko Administrazioaren Lanarriko Kontseilua



**ROSA M^a
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko lehendakaria zenak etxebizitza saldu berri du, eta jakin nahi nuke, lehendakari kargua nori egokitu zaion orain.

Lehendakariorde kargua ere izendatu den komunitateetan, berari dagokio lehendakaria ordezkatzea. Interpretazio zorrotz baten arabera, lehendakariordeak bere gain hartzen ditu presidentearen eginkizunak barne-ondorioetarako bakarrik. Beraz, hirugarrenetik harreman juridikoetan esku hartzeko edo epaitegi edo erakunde ofizialen aurrean agertzeko, beharrezkoa da Jabeen Batzordeak lehendakari berri bat izendatzea. Interpretazio zabal batek, ordezkapenez hitz egiten denean, ondorio guztietarako egiten duela esan dezake, lehendakariari dagozkion eskumen edo ahalmenetan inolako mugarik jarri gabe. Beraz, benetako lehendakari gisa jardungo luke. Egintzak baliozkoak izango dira, bai barruan, bai hirugarrenen aurrean. Nire ustez, ez da beharrezkoa Jabeen Batzarra egitea lehendakari berria izendatzeko, eta lehendakariordeak lehendakaria ordezkatzeko du eginkizun guztietan, lehendakari berria izendatu bitartean.

Ondorioa: jabe berriak ezin du lehendakaritza hartu, ezta funtzioetan ere. Lehendakariaren kargua pertsonala eta besberenezina delako. Beraz, ez zaio eskualdatzen jabe berriari, eta ezin da eskuordetu.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Ibon**, zapatuan 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Beñat**, zapatuan 2 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako, eta bereziki, Udaneren partez.



Zorionak, **Peru eta Elene!** 7 eta 12 urte! Patxo handi bana, etxeko denon partez. Ia eskatutako opariak jasotzen dituzuen.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Gremioen gida

GREMIOEN GIDA

Aroztegiak
Erreformak
Igeltseritza
Pintura

Leihoak
Iturgintza
Elektrizitatea

Gidan agertzearen onurak!

21€ hilean 21 €ren truke, hiler, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian!

12 aldiz urtean BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiko ikusia.

4.885 ale astero 4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 744 112 Alta Agire Kulturgunea, 3. 3. esk 20870 ELGOIBAR
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BOSCH WAU28S42ES ARROPA GARBIGAILUA



BLACK FRIDAY
BARRERATU ERITZEA
MILAR

599 €

- 1.400 rpm ● 8 kg-ko karga-ahalmena
- A+++ energia-sailkapena ● %30ko energia aurrezte
- I-dos: I-dos sentsoreel esker, garbigailuan dauden arropek behar duten xaboi kopuru zehatza kalkulatzeko da era berean xaboi eta ura aurreztuz. ● Etenaldia+karga funtzioa; zikloa martxan dagoela zerbait gehitu behar baduzu, aukera emango dizu funtzioak (etenaldia + karga).

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dandako prezioak. Produktuak agortu arte.

13 BARIKAKUA

10:30-14:00 Informazio mahaia: Gipuzkoako itaropenaren telefonoaren zerbitzua. Kalebarren plazan.

18:00-19:30 Euskaraldiko txapak banatuko dituzte Mendaron, udaletxeko atarian.

19:00 Antzerkia: 'Moko zorrotza'. Txalo produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

14 ZAPATUA

12:00-13:30 Euskaraldiko txapak banatuko dituzte Mendaron, udaletxeko atarian

18:30 Klowen saioa: 'Susanaren iraultza'. Mendaroko San Agustin kulturgunean. Sarrerak aurrez eskuratu behar dira, Leire jantzi dendan.

15 DOMEKA

16:30 Haurrentzako antzerkia: 'Pinocchio'. Gorakada Teatroak taularatuko du. Herriko Antzokian.

17 MARTITZENA

18:30 Hitzaldia: 'AGNHA/TDHA etxean. Egunerokotasuna ezagutu eta kudeatu'. ADAHIGI eta Ongizate Sailak antolatuta. Izena ematea beharrezkoa da ongizatea@elgoibar.eus helbidera idatzita.

18 EGUAZTENA

9:30 Informazio mahaia: Debarbarreneko parkinson elkartearen zerbitzuen aurkezpena. Deparkel elkartek eta Ongizate Sailak antolatuta, Kalebarren plazan.

11:00 Covid-19a: Ondorio emozionalak familietan eta krisia kudeatzeko baliabideak. Aita Agirreko kulturguneko areto nagusian. Agipase eta Ongizate Sailak antolatuta. Izena eman behar da ongizatea@elgoibar.eus helbidera idatzita.

17:00 Jostailu erakusketa. 0-8 urteko umeentzako jostailuak, Kultur Etxeko erakusketa gelan. 9 urtetik gorakoentzat, Aita Agirre kulturguneko erakusketa gelan. Ludotekak, Gaztelekuak eta Atxutxiamaikak antolatuta. Hilaren 19an eta 20an ere egongo da, eta 21ean goizez, 11:30etik 14:00etara.

19 EGUENA

15:30 eta 18:30 Gurasoentzako formakuntza tailerra: 'Komunikazio ez bortitza'. Nerea Mendizabalek eskainiko du, HHko eta LHko gurasoentzako. Lehen saioa gaztelaniaz eta bigarrena euskaraz.

19:00 Kontzertua: 'Oingoan bai: Tesura'. Herriko Antzokian.

20 BARIKUA

19:00 Bideo foruma: 'La estrella'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 Mendi Tour emanaldia. Morkaikok antolatuta, Herriko Antzokian. Sarrera, 4 euro.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Falling'

14 zapatua: 19:00

15 domeka: 19:00

16 astelehena: 19:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00			Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
13 BARIKAKUA	14 ZAPATUA	15 DOMEKA	16 ASTELEHENA	17 MARTITZENA	18 EGUAZTENA	19 EGUENA	20 BARIKAKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gabez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984




Juan Cruz Sol Oria

2020ko azaroaren 10ean hil zen, 73 urte zituela.

***Zure iribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.***



CD Elgoibar



Francisca Astigarraga Iriondo

2020ko azaroaren 4an hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Zure sendiak



Pedro Echaniz Osoro

2020ko azaroaren 7an hil zen, 67 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Petra Merino Pozo

2020ko azaroaren 10ean hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gauaren epelean,
izarren argipean,
hantxe aurkituko zaitugu, amama,
eta izango zaitugu beti gure bihotzean***

Etxekoak





Jose Ramon Cabrera



Iñaki Goitia



Gaurko bisitaren aniztasunak zoriontsu egin gaitu. Oraindaino ez da inor etorri gure solasaldira, familiakoei eta lagunei gonbidapenak luzatzeko ohitura ona dugun arren. Nolanahi ere, familiakoei zein lagunek beti dutenez beraien denbora xahutzeko gauza hoberik, nire emazteak pailazo bati, filosofo enpirista bati eta dromedario bati eman die ongietorria etxeko arkupean.

Gizalegez agurtu ondoren egongelan kokatu gara, bakoitza bere te kikara eskuan duela. Kosta zaigu elkarrizketari behar bezala ekitea, ez pentsa, baina poliki-poliki azaleratu dira gairik garrantzitsuenak; barre eragiteko broma egokie-

nak, kausen eta ondorioen legea, Rub al-Jali desertuaren lazatasuna... Etenik gabe elkarrizketa berotzen hasi da eta tertuliakideak beraien artean hain ezberdinak izaki, gaizki-ulertze bat sortzea denbora kontua izan da; honela, hasierako irai-irai tarta hegalarren, sofismen eta ostikoen bidea hartu dute.

Gaua eguna ordezkatzera etorri zaigunean agurraren garaia iritsi da. Zin-zinez eskertu diegu bisita, hurrengo baterako eman dugu hitzordua eta ateraino lagundu diegu; behin kailean daudela, dromedarioa kartsuki ari zaio eztabaidan pailazoari, gizakiaren adimena *Tabula rasa* bat dela behin eta berriz oihuka aldarrikatuz; filosofoa, aldiz, beronen jantzi koloretzuek apainduta dagoela, itzulipurdi grotesko batzuk egin nahian ari da. Ez da denbora asko igaro nire emaztearen bizkarrean konkor enpiriko bat sumatu dudanean.

“Familiakoei zein lagunek beti dute beraien denbora xahutzeko gauza hoberik”

“Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia” lemapean kaleratu du aurten ere Danobatgroup-ek euskararen eguneko lehiaketa

■ ‘Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia’ lemapean kaleratu du beste urte batez Danobatgroup kooperatiba taldeak enpresak dituen herrietara zabaldutako lehiaketa, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira.

■ Aurten presentzia izateko modua aldatu bada ere, bizi den egoeraren ondorioz, eta distantziara bada ere, esentziak jarraitzen du, eta hori erakusteko lehiaketa egingo da aurten ere.

Makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan espezializatuta dago Danobatgroup industria taldea eta Danobatgroup kooperatibaz gain Danobat, Goiti, Soraluze, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea.

Taldeko enpresak kokatuta dauden ingurune soziolinguistikoari begiratuz eta kooperatiben izateko era eta konpromisoari jarraituz, lema dioen moduan, euskara da batzen gaituen esentzia hori eta euskarak arlo guztietan presentzia izateari ematen ari zaio garrantzia azken urteetan. Presentzia eguneroko lanean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan, ikerketa eta garapenean...

Baina egunerokotasunetik harago, gizarteari ere euskararekiko duen konpromisoaren berri eman nahi zaio Danobatgroupetik eta presentzia izatera bideratu batzen gaituen hori.

Danobatgroup-ek harreman sare zabala du, eta bezeroekin sari ingelesen baliatu behar izaten bada ere, bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko konpromiso sendoa du, eta horren adierazgarri dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko

dituen planak, lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

Aurten, aurreko urteetako bideari jarraipena emanez, esan bezala, Danobatgroup-ek lantegiak dituen herrietako herritar guztiengana iritsi nahiko luke taldeko euskararekiko konpromisoa ezagutzera emanez euskararen eguneko hurrengo lehiaketaren bidez.

Gainera, aurten Euskaraldia ekimenarekin bat egin dute erakunde moduan taldeko kooperatiba guztiek eta erakunde moduan izena emateaz gain ariguneak sortu eta *Ahobizi* eta *Belarriprest* rolen izen ematean ere lagunduko da kooperatibetan bertan.

Lehiaketan parte hartzeko ondorengo helbidean sartu behar da: <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2020.html>

Aurtengo ariketak euskararen inguruan hausnarketa bideratuko du. Dena den, industria arloan euskararen erabilera laguntzen duen hitz tekniko osatutako hiztegian eskura dagoela gogorarazi nahi dugu: <https://www.danobatgroup.com/eu/euskara> eta hiztegian sartzeko hitz berrien bat proposatzeko aukera ematen duela.

Azaroaren 30era arteko epea izango da lehiaketan parte hartzeko, abenduaren 3an irtengo da irabazleen izena eta parte hartzaile guztien artean Errigorako hainbat saski zozkatuko dira.

Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia.



DANOBATGROUP

HARTU PARTE DANOBATGROUPEN EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi Errigora ekimenak sortutako bi saski beltz!



<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2020.html>

*Parte hartzeko azken eguna: 2020ko azaroak 30, 00:00

Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia

DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.

FAMILIENTZAKO JOSTAILU ERAKUSKETA

0-8 URTE
KULTUR ETXEKO
ERAKUSKETA GELAN

8-99 URTE
AITA AGIRRE KULTURGUNEKO
ERAKUSKETA GELAN

..... ORDUTEGIA

AZAROAREN 18AN, EGUAZTENA, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 19AN, EGUENA, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 20AN, BARIKUA, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 21EAN, ZAPATUA, 11:30ETIK 14:00ETARA

**NOIZNAHI ETA NONAHI QR BIDEZKO
ERAKUSTEA BIRTUALEAN**

10 urtetik beherakoek heldu batekin etorri beharko dute



Antolatzaileak:



Babeslea:



Laguntzaileak:



ERAKUSTEA BIRTUALEAN